—Jokatzen dazkitzun zor ditudanak, nere semeak ez datzuela gezurrik erraten.

—Bai, artzeko ditudanak eta ber-txe hainbertze jokatzen dazkitut.

—Ze erran dautzu ba nere semeak?

—Galdetu diot ea zehari den hor. Eta erran dat: etorriak jaten eta hel-du dienen beira.

—Eztatu batê gezurrik erraten: el-tzeak, irakitzean, ilharrak goiti bota-tzentu: hek jatentu eta heldu dienen beira dago.

—Galdetu diot eian ze ikusten duen hor, eta erran diot: gizon baten erdia eta zaldi baten burua.

—Eztatzu batê gezurrik erraten: zu-re zaldiaren burua eta zure erdia ikus-tentu gaineko ate erdiaren aitzinean.

—Galdetu diot nun den aita. Eta erran dat: alaba gaztênaikin ihizira gana. Baita galdetu diot ea aitak ze ekartzen duen handik, eta berak erran dat: hilak han utzi eta biziak ekarri.

—Eztautzu batê gezurrik erraten: aitak buruan zorriak bilatzen diozka alabari, eta hilak hun utzi eta biziak ekartzentu etxerat.

—Galdetu diot nun den ama. Eta erran dat: aitak eta amak goizean Elkar hil dute eta tripak garbitzera gana.

—Batê eztautzu gezurrik erran. Ze-rrri bat ba-genuen Elkar izena zuena: hura hil dugu egun goizean eta ni orain heldu tripa-garbitzetik.

Gizon harek ikusi zuen mutikoak egiak erran zituela eta berak jokoa gal-du zuela ezagutu omentzuen.

Gero amari galdetu omentzion eian mutil hura harekin gate utzi nahi zuen, harek aberats inen zuela.

Amak utzi omentzion eta mutikoa

—*Mi hijo no dice mentiras.*

—*Sí, me las ha dicho muy grandes.*

—*Le juego las cantidades que le adeudo a que no le ha mentido.*

—*Sí, te juego las que tengo en haber y otras tantas.*

—*¿Qué le ha dicho mi hijo?*

—*Le he preguntado qué hace ahí. Y me ha dicho que está comiendo lo que ha llegado y aguardando a lo que va viniendo.*

—*No le ha mentido nada: cuando la olla hierve, lanza fuera las alubias: éstas las come él y aguarda a las que van viniendo.*

—*Le he preguntado qué ve ahí, y ha contestado: la mitad de un hombre y la cabeza de un caballo.*

—*No le miente nada: la cabeza de su caballo y la mitad de usted ve él que están ante la mitad superior de la puerta.*

—*Le he preguntado dónde está el padre. Y me ha dicho que ha ido a cazar con la hija más joven. También le he preguntado qué trae de allá el padre, y él me ha contestado: a los muertos los deja allá y trae a los vivos.*

—*No le miente nada: el padre busca piojos en la cabeza de la hija y deja allí los muertos y vuelve a casa a los vivos.*

—*Le he preguntado dónde está la madre. Y me ha dicho que el padre y la madre esta mañana mataron Uno-a-otro y que la madre ha ido a limpiar las tripas.*

—*No le ha mentido nada. Teníamos un puerco llamado Uno-a-otro: lo hemos matado esta mañana y yo vuelvo ahora de limpiar las tripas.*

Aquel hombre comprendió que el

gan gizon harekin.

Abiatzean bi arroltze hartu omentzitzen sakelan mutikoak.

Gizonak erran omentzion: Zertako hartzentuk. Guk gan behar dugun lekuan bauk arroltzia franko.

Mutikoak erran omentzion: Gure aitak erraten du etxean duena ez dela kanpora bila gain.

Oihan batean pasatzean mutikoa asi omentzen xixtapurrak bildu eta saki-lan sartzen.

—Mutikoa, ze hari aiz hor: gu gan behar dugun lekuan bauk egurra franko, *erran omentzion aberatsak.*

—Gure aitak erraten du, etxean duena ez dela kanpora bila gain, *mutikoak.*

Malda bat gora zoazielarik, zaldia kakiten asi, eta mutikoak bere gapelura zaldien kaka bildu.

—Mutikoa, ze hai aiz hor gapelua zikintzen? *aberatsak.*

—Gure aitak erraten du etxean duena ez dela kanpora bila gain, *beritz ere mutikoak.*

Gero ikusi omentzuten etxe bat. Errege baten jauregia omentzen. Errege orrek errana omentzuen haren alaba hiru hitzetan arrapatzen zun mutila beraikin ezkonduko zela.

Jauregi haren parean pasatzean, ikusi omentzuten erregeen alaba leihotik beira. Eta mutikoak berari erran omentzion:

—Agur, andre gaztea, ederrik eta gorriik zaude hor.

—Baitut barrian sua, *erregeain alabak.*

—Tori bi arroltz erretzeko.

—Eztut egurrik.

muchacho le dijo verdades y reconoció que él había perdido la apuesta.

Después preguntó a la madre si quería dejar que aquel muchacho se fuera con él, pues él le haría rico.

La madre se lo dejó y el muchacho se marchó con aquel hombre.

El muchacho tomó en el zurrón dos huevos al emprender el viaje.

El hombre le dijo: *¿Para qué los tomas? Hay muchos huevos allá donde nosotros vamos.*

El muchacho le dijo: *Nuestro padre dice: quien tiene en casa no irá a buscarlo fuera.*

Al pasar por un bosque el muchacho empezó a recoger palillos y a meterlos en el zurrón.

—*Muchacho, ¿qué haces ahí? En el lugar a donde vamos nosotros abunda la madera,* le dijo el rico.

—*Nuestro padre dice: quien tiene en casa no irá a buscarlo fuera (contestó) el muchacho.*

Subiendo una cuesta, el caballo empezó a evacuar el vientre, y el muchacho recogió en su boina los cagajones del caballo.

—*Muchacho, ¿qué haces ahí ensuciando la boina?,* dijo el rico.

—*Nuestro padre dice: quien tiene en casa no irá a buscarlo fuera,* (contestó) otra vez el muchacho.

Después vieron una casa. Era el palacio del rey. Ese rey tenía declarado que el muchacho que venciera en tres frases, se casaría con ella.

Al pasar frente a aquel palacio vieron a la hija del rey que miraba de la ventana. Y el muchacho dijo a ella:

—*Ave, señora joven, está usted ahí*

—Tori egurra, *errantzion mutikoak, sakelatik xixtapurrak ateraz.*

—Apo-kaka!, *erran erregen alabak.*

—Tori, andia, bero-berua, *erran mutikoak, gapelua zabalduaz.*

Hiru hitzetan atxeman bai zuen erregen alaba, han, jauregi hartan, gelditu omentzen mutikoa.

hermosa y rolliza.

—*Dentro tengo fuego, (le dijo) la hija del rey.*

—*Tome dos huevos, para freírlos.*

—*No tengo leña.*

—*He ahí la leña, le contestó el muchacho, mientras sacaba palitos del zurrón.*

—*¡Excrementos de sapo!, dijo la hija del rey.*

—*Tómelo, señora, muy caliente, le dijo el muchacho, mientras abría la boina.*

Como venció en tres frases a la hija del rey, allí, en aquel país, se quedó el muchacho.

(Contado el 15 de abril de 1942 por Dominica Gultzu, de Zugarramurdi)

VIII: 161.— *Mutiko zozo baten ipuia* «El cuento de un muchacho tonto»

Mutiko zozo bat omentzen bein batean bere amaikin bizi zena.

Amak igotzen omentzuen egun guziz ogiketâ.

Ogiaikin etxera heldu zelaik egun batez, gelditu omentzen itxasegian itxasoai beira.

Arrain aundi bat etorri omentzizaion goseak, eta pixka 'at emateko galdein.

Zozoak ezetz. Berritz ee arrainak galdein. Orduan mutiko zozoak ogidena bota omentzion arrainai.

Arrain harek erran omentzion: Jangoikoain eta ureko arrainain izenian galde zazu nauzuna, eta izain duzu.

Mutiko hori etxeat gan omentzen ogik gabe.

Ama asertu: eian nun zuen ogia.

Arrain bati bota ziola erran omentzion semeak.

Era un muchacho tonto, quien vivía en un tiempo con su madre.

La madre le enviaba diariamente a buscar pan.

Un día en que volvía a casa con el pan, se quedó en la orilla del mar mirando al mar.

Le vino un pez grande hambriento y le pidió un poco.

El tonto (le dijo) que no. De nuevo el pez le pidió. Entonces el muchacho tonto arrojó el pan entero al pez.

Aquel pez le dijo: *En el nombre de Dios y de los peces del mar pida lo que desea y lo tendrá.*

Ese muchacho volvió a casa sin pan.

La madre enfadada: a ver dónde tenía el pan.

El hijo le contestó que se lo echó a un pez.

Entonces la madre (le dijo) que co-

Orduan amak: jan zezala arraina, egun hartan etzuela deusik jain.

Mutikoa gose baitzen, erran omentzuen: Jainkoain eta ureko arrainain izenian, etor dadiela ogi bat etxe untâ.

Eta ogia etorri.

Ondoko egunetan berdin. Galdetzen zuen guzia etortzen. Ama-semeak arras ongi bizi omentzien.

Egun batez mutiko hori pasatzen omentzen erregeain jauregiko aldian. Erregen alaba leihotik beira, eta irri in omentzion mutiko horri.

Mutiko horrek orduan: Jainkoain eta ureko arrainain izenian haurdun geldituko ahal haiz. Eta hala gertatu.

Erregek, alaba nola zen ezagutze zuelarik, asertu omentzen eta galdein omentzion eian noengandik zuen.

Alabak: Nioengandik.

Aita beti aserre.

Gero haurra sortu zanian, erregek bildu omentzituen bere etxe-aintzinian iri hartako gizonak, eta denei sagar bana eskurat eman.

Gizon guziek behar omentzioten beren sagarra haurrari eskaini: zeini sagarra haurrak hartzen zion hura izain zuela aita.

Haurrak mutiko zozo haren sagarra hartu.

Orduan errege arrunt asertu, eta zozoa, alaba eta haurra ontzi baten barnean sartu eta itxasora botazi omentzituen.

Mutiko zozoak erregen alabari galdein omentzion eian ze nahi zuen.

—Ur hontaik atera gaitzen leiho-
rea, errantzion.

Mutiko zozoak erran: Jaingoikoain eta ureko arrainain izenian, atera gaitzela leihorrea.

miera el pez, que aquel día no comería ninguna cosa.

Como el muchacho sentía hambre, dijo: *En el nombre de Dios y de los peces del mar, que venga un pan a esta casa.*

Y vino el pan.

Lo mismo en los días siguientes. Cuanto pedía le venía. Madre e hijo vivían muy holgadamente.

Un día ese muchacho pasaba cerca del palacio real. La hija del rey miraba de la ventana y se rió de ese muchacho.

Entonces ese muchacho (le dijo): *En el nombre de Dios y de los peces del mar, que te quedés embarazada.* Y así sucedió.

Cuando el rey se enteró del estado de su hija, se enojó y le preguntó de quién lo tuvo.

La hija (le dijo): *De ninguno.*

El padre siempre enojado.

Después, cuando nació la criatura, el rey reunió delante de su domicilio a los hombres de aquella ciudad y dio cada uno una manzana.

Todos los hombres debían ofrecer su manzana a la criatura: aquél a quien la criatura le aceptara la manzana, sería su padre.

La criatura aceptó la manzana del muchacho tonto.

Entonces el rey se enfadó enormemente e hizo que el tonto, la hija y la criatura fueran lanzados al mar metidos en una embarcación.

El muchacho tonto preguntó a la hija del rey qué deseaba.

—*Que salgamos de esta agua,* le contestó.

El muchacho tonto dijo: *En el nom-*

Bereala atera omentzien.

Gero mutiko zozo horrek etxe eder bat bere eleekin inarazi, eta handik erregeren jauregira errebide bat ere bai.

Erregen mutilek bide berri hura ikus zutelaik, erregengana gan omentzien erratera.

Erregek bere mutilak biall bide hura noaino zen ikustera.

Mutilak gan omentzien eta aileatu jauregi berri hartâ eta ikusi erregen alaba leihoan zagola, haurra besoan.

Mutilak itzuli erregengana eta erran omentzioten zer ikusi zuten.

Errege harritu omentzen eta gan omentzen bera jauregi berri hartâ.

Atean bi zakur. Sartzen ez uzten.

Mutiko zozoa etorri eta zakurrak geldiarazi.

Errege ongi hartua izan omentzen. Berak galdein omentzuen eian nola uretik atera zien, nola etxe eder hura eta errebidea inak izantzien egun batez.

Orduan mutiko zozoak: Zure alabak haurra izan duen bidez inak die hauk guziak.

bre de Dios y de los peces del mar, que salgamos a la tierra.

Inmediatamente salieron.

Después ese muchacho tonto hizo construir, mediante su fórmula, un hermoso edificio y una carretera desde allí hasta el palacio real.

Los criados del rey, en cuanto vieron el nuevo camino, fueron a decirselo al rey.

El rey envió a sus criados a ver hasta dónde llegaba aquel camino.

Los criados se marcharon y llegaron a aquel nuevo palacio y vieron en la ventana a la hija del rey con la criatura al brazo.

Los criados volvieron y dijeron al rey lo que habían visto.

El rey se extrañó y se marchó él a aquel nuevo palacio.

En la puerta dos perros. No dejaban entrar.

Vino el muchacho tonto y aplacó a los perros.

El rey fue bien recibido. El preguntó cómo salieron del mar y cómo fueron hechos aquel hermoso edificio y la carretera en un día.

Entonces el «muchacho tonto» (le dijo): *Todas estas cosas han sido hechas mediante la fórmula por la que su hija ha tenido la criatura.*

(Contado por Dominica Guiltzu, en abril de 1941)

VIII: 161.—*Abarositsi eta aberats bat* «Abarositsi y un rico»

Herri batean gizon bat omentzen. Abarositsi izena zuena.

Bein atxeman omentzitzen bi erbi biziik.

Herriko gizon aberats bat etxera

En un pueblo había un hombre cuyo nombre era *Abarositsi*.

Una vez capturó vivas dos liebres.

Un hombre rico del pueblo se le vino a casa y, viendo las liebres, le pre-

etorri omentzizaion, eta erbiak ikusita galdetu omentzion eian zertako zeuzkan erbi hek biziik.

—Hek nere mandatuak iteko ditut— erran omentzion Abarositsik, eta bereala erbi bat biali omentzuen kanporat mandatu itea.

Gizon aberats hura gan omentzen handik eta berritz itzuli zenean Abarositsik bertze erbia erakutsi, leengo erbia balitz bezala.

Aberatsak sinetsi omentzion mandatuko erbi hura bera zela, eta eian nahi zuen saldu erbi hura erran omentzion.

Baietz erran omentzion Abarositsik, mila pesetetan salduko ziola.

Aberatsak erosi, eta etxerat eraman eta mandatuz biali omentzuen.

Baino erbia ez itzuli.

Aberatsa koleran heldu omentzen Abarositsingana.

Abarositsik leihotik ikusi omentzuen, eta baita ezagutu ere zertara heldu zen.

Bere andreari erran omentzion: Lo-tzazu zâto bat arno sabelean, soinekoen barnetik, eta biak asiko gara elkarrekin mokoka.

Aberatsa etxean sartzeaikin batian, jaun-andreak asi omentzien mokoka, eta berain aintzinian Abarositsik nabalekoaldi bat eman andreaki sabelain gainean eta zâtoa zilatu eta odolain itxuzan, arnoa ixuri.

Andrea erori, ustez eta hilik.

Aberatsa izitu omentzen.

Orduan Abarositsik hura deusik etzela erran omentzion, harek pixtuko zuela andrea. Eta sakelatik atera xirola bat eta jo omentzuen.

Andrea berehala altxatu.

guntó por qué tenía vivas aquellas liebres.

—*Las tengo para que me hagan recados*, le dijo Abarositsi, y seguidamente envió fuera una liebre encargándole de hacer un recado.

El rico se marchó de allí, pero al volver de nuevo, Abarositsi le presentó la otra liebre como si fuera la primera.

El rico le creyó que era la liebre del recado, y le preguntó si quería vender aquella liebre.

Abarositsi le contestó que sí, que le vendería por mil pesetas.

El rico la compró y la llevó a casa y envió fuera encargándole un recado.

Pero la liebre no volvió.

El rico venía enojado a casa de Abarositsi.

Abarositsi le vió de la ventana y conoció a qué venía.

Dijo a su mujer: *Ata al vientre una bota de vino por debajo del vestido, y empezaremos a reñirnos.*

En el instante en que el rico entraba en casa empezaron a disputar ambos consortes y, en presencia del rico, Abarositsi dio una navajada a la mujer sobre el vientre y agujereó la bota y derramó el vino como si fuera sangre.

La mujer se desplomó como muerta.

El rico se asustó.

Entonces Abarositsi le dijo que el caso no tenía importancia, que él resucitaría a la señora. Y sacando del zurrón un silbo lo hizo sonar.

La señora se levantó en seguida.

El rico le preguntó si quería vender el silbo, que le daría mil pesetas.

Aberatsa arrituik, hura han ikus-teaz. Eian nola atera zen itxasotik eta nundik zituen ardihek, galdetu omentzion.

—Itxasotik ateratut arti hauk, errantzion.

—Itxasoan ba-dira ardiak?

—Bai; harako xuri hek ikustentuzu? Hek ardiak dire.

Orduan aberatsa itxasoan sartu omentzen ardibila, eta han gelditu.

(Contado por Dominica Gultzu, en abril de 1942)

VIII: 161.—*Soldadua eta ezko beltz arrigarria* «El soldado y vela negra maravillosa»

Bein batez omentzien hiru soldadu. Goseak omentzauden.

Hiruetatik bat gan omentzen landa bateat eta etorri omentzen patata gordina yaten.

Lagunak erran omentzioten: Ekar-rak patata, goseak gaudek gu ere.

—Zoazte nik hartutudan lekura, han bauk franko.

Bertze biak orduan gan omentzien landa hartaa, eta bizkitartean hura partitu omentzen kurri.

Arratseko ailetan omentzen ostatu baterat, eta gauerako aloimendua galdein.

Hango etxekoandreak, bere baitan uste zuelarik soldadu harek etzuela di-ruik izain, ezetz bezala in omentzion.

—Neretzat berdín izain da nun na-hi zoko batean, erantzun omentzuen soldaduak.

Orduan etxekoandreak lekua eman.

Biaramun-goizean ostatuko etxe-koandreak erran omentzion eian inen

—¿Hay ovejas en el mar?

—Sí, ve usted aquellos puntos blan-cos? Son ovejas.

Entonces el rico se metió en el mar en busca de ovejas y allí se quedó.

Había una vez tres soldados. Esta-ban hambrientos.

Uno de los tres fue a una heredad y volvió comiendo patata cruda.

Los compañeros le dijeron: *Danos la patata, también nosotros estamos hambrientos.*

—*Iros al lugar donde yo las he reco-gido: allí hay muchas.*

Los otros dos fueron a aquella he-redad, y entrando partió el otro caminando.

Al atardecer llegó a una posada y pi-dió hospedaje para la noche.

La señora de allí, diciendo en su in-terior que aquel soldado no tendría di-nero, hizo como que no podía recibirle.

—*Para mí es igual en un rincón cualquiera, le contestó el soldado.*

Entonces la señora le acogió.

En la mañana siguiente la señora de la posada le preguntó a ver si le haría

zión fabore bat, gauazko aloimendua in aldera.

Baietz, soldaduak.

—Ikuste 'uzu hor aintzineko aldean den jauregi hoi?, *erran omentzion etxeoandreak.* Hor ezin laike nihor sartu: ba-dire hiru zakur irigarriak hiru eskalera-troinetan. Gain zere harat?

—Bai, gain naiz: ekartzizu hiru opil hiru zakurrentzat.

Eman omentzioskan hiru opil eta erran omentzion: Hirugarren eskalera-tromera aileatzeaikin, ikusiko duzu ate bat; han sar zaite; barnean ba-da ezko beltz bat; hura niri ekarri behar datazu.

Soldadua gan omentzen jauregi hartâ, eta bere opilekin hiru zakurrekila-koa in omentzuen, eta atetik barnea sartu. Eta han aurkitu omentzuen diru-pila bat, eta haren gainean ezko-beltza.

Ezko beltza lenik hartu, eta sakelak eta golkua eta dena diruz bete eta ostaturat itzuli.

Ostatuko etxeoandreak ezko-beltxain galdea in omentzion. Baino soldaduak diruz aloimenduko saria pagatu, eta ezko beltza beretzat gelditu.

Soldaduak aldegin omentzuen eta hiri baterat gan. Han ostatu batean sartu omentzen eta gauazko aloimendua galdein.

Pobriain iduria baitzuen, han ere etzioten ostatuik eman nahi. Aldiz harek erraten omentzioten aski zela harrentzat edozein xoho.

Orduan ostatuko nausiak bêko ganbara xahar batera ereman omentzuen.

Han barnean soldadua diru kontatzen asi omentzen. Ostatukoak aitu zutelarik diru-soindua, erran omentzio-

un favor a cambio del hospedaje de la noche.

El soldado le contestó que sí.

—¿*Ve usted ese palacio que está ahí delante?*, le dijo la señora. *Ahí no puede entrar ninguno: tres perros terribles ocupan en tres descansillos de la escalera. ¿Irá usted allí?*

—*Sí, iré; deme tres panecillos para los tres perros.*

Le dió tres panecillos y le dijo: *Al llegar al tercer descansillo verá usted una puerta; entre en ella, dentro se halla un cirio negro: tiene que traérmelo a mí.*

El soldado fue a aquel palacio y con sus panecillos cumplió con los tres perros y entró por la puerta. Allí encontró un montón de dinero y encima del mismo el cirio negro.

Cogió primero el cirio negro y llenó de dinero los bolsillos, el seno y todo, y volvió a la posada.

La señora de la posada le pidió el cirio negro. Pero el soldado pagó en dinero su hospedaje y guardó para sí el cirio negro,

El soldado se marchó y llegó a una ciudad. Allí entró en una posada y pidió hospedaje para la noche.

Como tenía traza de pobre, tampoco allí le querían recibir. El a su vez les decía que un rincón cualquiera era bastante para él.

Entonces el amo de la posada le condujo a un viejo cuarto de la planta baja.

Allí dentro el soldado empezó a contar dinero. Los de la posada, al oír el sonido de dinero le dijeron: *Amigo, tenemos también otro cuarto mejor para usted: venga acá.*

ten: aixkidea, ba-dugu bertze ganbara bat ere ohea zuri emateko: zato.

—Ez, ez: neretzat ba-da aski hau, berak erran.

Biarramun-goizian ostatuko nau-siak hango erregeai adierazi omentzion etxean ba-zuela soldadu bat diru ainitz zuena.

Erregek bazkaitâ bere jauregira eguerdian bialtzezala.

Soldadua gan omentzen erregenganat eta erregekin bazkaldu.

Bazkalondoan erregek jokoan desafiâu.

Soldaduak xoko batera gan eta ezko beltza pixtu omentzuen. Eta gizon aundi bat agertu eta galdein omentzion: Zer nahi duk? Hik errate uhen guzia iteko prest nauk ni.

—Erregekin eta bere lagunekin ibentudan partida guziak irabaztia, erantzun soldaduak.

—Inak izaintuk.

Soldadua asi omentzen jokuan erregeaikin eta bere lagunekin, eta intzientuen partida guziak irabazi.

Ostatuan ere jokatu eta han ê guziak irabazi.

Erregek orduan bere etxerat hartu omentzuen soldadu hoi.

Erregen alabak gauaz bere ganbaran norbait sumatzen omentzuen. Erregek urre-muntra 'at utzi omentzuen ganbara hartan, hara gaten zenak hura hartuko zuela eta jakinen zutela nor ibiltzen zen han.

Biamunean muntra soldaduaren ganbaran aurkitu omentzuten.

Erregek orduan presondegirat ereman omentzuen soldadu hoi, eta hiltzeat kondenatu.

Soldaduak ezko beltza piztu. Gizon

—No, no; *éste es suficiente para mí*, les contestó él.

En la mañana siguiente el amo de la posada avisó al rey del país que en su casa tenía a un soldado que poseía mucho dinero.

El rey (le avisó) que al mediodía le enviara a su palacio a comer.

El soldado fue a casa del rey y comió con el rey.

En la sobremesa el rey le invitó a jugar.

El soldado se retiró a un rincón y encendió el cirio negro. Y apareció un hombre grande y le preguntó: *¿Qué quieres? Estoy dispuesto a hacer cuanto tú digas.*

—*Que gane yo todas las partidas que juegue con el rey y con sus amigos*, le contestó el soldado.

—*Serán hechos* (serás cumplido).

El soldado empezó a jugar con el rey y con sus amigos y ganó todas las partidas.

En la posada jugó también y salió ganando en todo.

Entonces el rey le acogió en su casa a ese soldado.

La hija del rey sentía de noche a alguien en su cámara. El rey dejó un reloj de oro en aquella cámara, (pensando) que el visitante nocturno se apoderaría de él y que llegarían a conocer quién andaba allí.

El día siguiente hallaron el reloj en el cuarto del soldado.

Entonces el rey envió a la cárcel a ese soldado, y le condenó a la muerte.

El soldado encendió el cirio negro. Apareció aquel hombre grande y le dijo: *¿Qué quieres? Estoy dispuesto a hacer cuanto tú quieras.*

aundi hura agertu eta erran: Zer nahi duk? Hik nahi duken guzia iteko prest nauk ni.

—Nê hiltzera erregek bialtzen dituen gizonak hiltzea.

—Inak izaintuk.

Erregek biali gizonak soldadu haren hiltzera. Baino guziak han hil, eta soldadua biziik.

Orduan erregek bere etxera berritz sartu omentzuen soldadua, eta bere alabaikin ezkondu.

Erregen alabak maiz galdetzen omentzion bere senarrari eian zertako zuen beti berekin erematen zuen ezko beltz hura. Eta azkenik soldaduak erran dena zen bezala.

Bein batez soldaduak, ahantziik utzi omentzuen ezko beltza bere ganbaran. Erregen alabak ezko hura pixtu. Gizon aundi hura agertu eta galdein: Zer nahi dun? Hik nahi dunen guzia iteko pres naun ni.

—Ereman dezaken nere senarra urrun eremu batera, sekulan geio ikusiko ez dudan leku batera.

—Eremana izain dun, *erran omentzion gizon harek.*

Soldadua eremana izan omentzen urruneko eremu batera, eta han egon omentzen belarra janari. Bizkitartean erregan alaba bertze batekin ezkondu.

Arrano bat etorri omen zitzaion soldaduari erranez: Hi, nolako gizon panparroia izana, umil ago hor.

—Bai, hala niauk, *soldaduak.*

Eta arranoak: Nik ainitz esker zor diat hiri: hik hilarazitako gizon ta animalaen adagi ustel ainitz jana nauk. Zer nahi duk orai?

—Ni erematea erregen etxe-ondora.

Arranoak hartu eta erematen

—Que mates a los hombres que el rey envíe para matarme.

—*Serán hechos* (serás cumplido).

El rey envió hombres para matarle. Pero todos murieron allí, y el soldado (quedó) vivo.

Entonces el rey le acogió de nuevo en su casa al soldado y le casó con su hija.

La hija del rey preguntaba frecuentemente a su marido por qué llevaba siempre consigo aquel cirio negro. Y por fin el soldado le contó todo con precisión.

Una vez el soldado dejó por olvido el cirio negro en su cuarto. La hija del rey encendió aquel cirio. Aquel hombre grande se le apareció y le preguntó: *¿Qué quieres? Estoy dispuesto para hacer cuanto tú quieras.*

—*Que lleses a mi marido lejos, a un país donde yo no pueda verle jamás,* le contestó ella.

—*Será llevado,* le dijo aquel hombre.

El soldado fue conducido a un país lejano, y allí estuvo con hierbas como comida.

Entretando, la hija del rey se casó con otro.

Un águila le vino al soldado diciéndole: *Tú, hombre tan fanfarrón, estás ahí humillado.*

—*Sí, así estoy,* le contestó el soldado.

Y el águila: *Yo te debo muchas gracias a tí: he comido carnes de muchos hombres y animales que tú hiciste matar. ¿Qué quieres ahora?*

—*Que me lleses al lado de la casa del rey.*

El águila le tomó y le llevó. En el

omentzuen. Bidean arranoa egarritu; harri baten gainian soldadua pausatuarik, ur edatera gan urrun.

Arranoa ez ageri; soldadua etsitu, ez zitzaiola etorriko. Noizbait ikusi omentzuen urrun heldu zela, eta erran arranoari: Uste nian ez itzala etorriko.

—Urrun duk hemendik ura.

Berritz hartu soldadua, eta ereman erregen etxe-ondora.

Han soldaduak erregen alabain neskatua ikusi eta biak mintzatzen asi eta adiskide in.

Egun batez soldaduak neskatuari galdein: Nausia eta etxeoandrea ongi dira?

—Bai, arras ongi, neskatuak.

—Ba-dakizu erregen alabain ganbaren non dagoen ezke beltz bat?

—Bai, ximinigainian.

—Hura niri ekartzea nai nuke.

Eta neskatuak ekarri ezkoa.

Eta soldaduak pixtu, eta gizon aundi hura agertu, betiko elea erranez.

Soldaduak galdetu omentzion ereman dezaken erregen alaba iduzkia ateratzen den alderat eta haren bigarren senarra iduzkia sartzten den alderat.

—Inak izaintuk, omentzion gizonak.

Eta erregen alaba eta bere bigarren gizona eremanak izan omentzien batkotxa bere aldera.

(Contado en 1942 por Dominica Gultzu, de Zugarramurdi)

VIII: 161.—*Jaun-andreak beren alabekin eta «Aita gurea»-ren inderra «Señor y señora con sus hijos y el valor de un “Padre Nuestro”»*

Etxe batean omentziren jaun-andre batzuek bi alabekin.

camino el águila sintió sed; dejó al soldado sobre una peña y se marchó a beber agua.

El águila no aparecía; el soldado temió que ella no viniera. Por fin vió a lo lejos cómo volvía, y dijo al águila: *Creía que no regresarías.*

—*El agua se halla lejos de aquí,* le contestó el águila.

Tomó de nuevo al soldado y le llevó al lado de la casa real.

Allí el soldado vió a la criada de la hija del rey y ambos entablaron la conversación y se hicieron amigos.

Un día el soldado preguntó a la criada: *¿El amo y la señora se llevan bien?*

—*Sí, muy bien,* (dijo) la criada.

—*¿Sabe dónde se halla un cirio negro en la cámara de la hija del rey?*

—*Sí, sobre la chimenea.*

—*Quisiera que me lo trajeras.*

Y la criada trajo el cirio.

Y el soldado lo encendió, y aquel «hombre grande» apareció, diciendo la fórmula de siempre.

El soldado le pidió que llevara a la hija del rey a la región de donde sale el sol y a su segundo marido a la región donde se pone el sol.

—*Serán hechos,* le contestó el hombre.

Y la hija del rey y su segundo marido fueron conducidos cada uno a su lado.

Había en una casa un matrimonio con dos hijas.

Gizona limosnagilea omentzen; andria, ez.

Bein, gizona etxean etzelaik, emazteki zahar bat etorri omentzen etxe hartan eskean, eta galdetu limosna, Aita gure bat errezatuko zuela.

Andreak: ba berak errezatuko zuela Aita gurea, eta limosnarik ez omentzion eman.

Gizona etxera etorri zitzaiozlarik, andreak erran omentzion zer gertatu zen.

Gizonak orduan andreari: gan zadila munduan kurri Aita gureak zenbat balio zuen jakiteko.

Andre hori ibili omentzen zazpi urtez betikurri; bainan ezin jakin Aita gurea'ren balioa.

Azkenik gan omentzen apez bategana, eta erran omentzion nola zebilan Aita gurea'k zenbat zuen balio jakin beharrez.

Apezak erran omentzion, gauaz amabietako, eliza-ingurura yateko eta han jakinen zuela Aita Gurea'k zenbat zuen balio.

Gan omentzen eliza-ingurura andre hori, eta atseko amabiak jotzen, Purgatorio animak prozesionean ikusi omentzitu. Han omentzen deneaik: batzuek su ainitz, bertzeak gutiago, eta denen gibeletik gizon zahar bat esku bat bakarra sutan zuela, irriz eta kontent.

Andreak galdetu omentzion gizon zahar hari: Zergatik zare hoin kontet?

—Nere etxalonduan mutiko bat sortu delako apez inen dena eta bere etxeko obligazionezko animentzat Aita gure bat errezatuko duena, eta niorduan gain naiz zerura.

Andre horrek galdein omentzion: Ez litake berdin nik errezatzea?

El hombre era limosnero; la señora, no.

Una vez, no estando en casa el hombre, una mujer anciana vino a aquella casa mendigando, y pidió una limosna (prometiendo) que rezaría un Padre nuestro.

La señora (le dijo) que ella rezaría el Padre nuestro y no le dió ninguna limosna.

Cuando el hombre le vino a casa, la señora le contó lo ocurrido.

Entonces el marido dijo a la señora que recorriera el mundo a fin de saber cuánto valía el Padre nuestro.

Esa señora anduvo durante siete años sin descanso, pero no podía averiguar el valor del Padre nuestro.

Finalmente, fue donde un cura y le dijo cómo andaba por saber cuánto valía el Padre nuestro.

El cura le dijo que se acercara a la iglesia a las doce de la noche y que allí sabría cuánto valía el Padre nuestro.

Fue esa señora al lado de la iglesia y cuando dieron las doce de la noche vio en procesión a las almas del Purgatorio. Allí había de todo: unos ardían mucho, otros menos y detrás de todos un hombre viejo, que teniendo en el fuego una sola mano venía riendo y contento.

La señora preguntó a aquel hombre anciano: ¿Por qué se halla tan contento?

—En mi casa natal ha nacido un niño que llegará a ser sacerdote y que rezará un Padre nuestro por las almas de los antepasados de su casa, y entonces yo iré al cielo.

Esa señora le preguntó: ¿No sería lo mismo que yo rezara?

—Bai, berdin izain litake, *erran omentzion gizon zaharrak.*

Orduan andreak zeinatuta Aita gure bat errezatu omentzuen eta gizon xahar hura zerura gan omentzen.

Hortatik andere harek jakin omentzuen Aita gurea'k zenbat balio zuen, eta etxerat itzuli omentzen.

Gau bateko aloimendua galde in omentzuen bere etxean.

Gizonak ez ezagutu, bainan aloimendua eman omentzion.

Bi alabak amaren onduan jartzen omentzien eta harekin lo itera gan nahi.

Gizonak ontzat hartu omentzuen bere alaben nahia, zebait e, mirari edo, bazela alaben ibiltzeko moduan. Eta hiruak ganbara batera lo itera biali omentzituen.

Biharamunean, argitzean, elizan ezkilak berez jotzen asi omentzien. Jendea zertzen harritu omentzen.

Gizonak ama bere alabekin beren ganbara: hila atxeman omentzuen.

(Contado por Dominica Gultzu, de Zugarramurdi, el día 25 de abril de 1941, en la vieja casa infanzona llamada *Ibarsorobeherea* de Sara)

VIII: 161.—*Bi anaia: Egia eta Gezurra* «Dos hermanos: la verdad y la mentira»

Ba omentzien bi anaia: bat Egia eta bertzea Gezurra.

Gan omentzien biak munduen kuri, bakotxa bere alde.

Denbora ainitzen buruan berritz elkar ikusi omentzuten. Egia behartsu omentzen; Gezurra, aberats.

Egiak galdein omentzion Gezurra'ri eian nola aberastu zan.

—Nere gezurrekin jendea engañatuz, *erran omentzion.*

—*Sí, sería lo mismo*, le contestó el hombre viejo.

Entonces la señora se signó y rezó un *Padre nuestro*, y aquel hombre viejo fue al cielo.

De ahí aprendió aquella señora cuánto valía el *Padre nuestro* y volvió a casa.

Pidió hospedaje para una noche en su casa.

El marido no la conoció, pero le dió el hospedaje.

Las dos hijas se colocaron junto a la madre y querían ir a dormir con ella.

El hombre aprobó el deseo de sus hijas, (pensando) que algo, como milagro, había en el comportamiento de las hijas. Y envió a las tres a dormir a un cuarto.

Al día siguiente, al amanecer, las campanas empezaron por sí solas a tocar en la iglesia. La gente estaba aturdida.

El hombre halló en el cuarto muerta con sus hijas.

Eran dos hermanos: Uno *Egia* «la verdad» y el otro *Gezurra* «la mentira».

Tras larga temporada se vieron de nuevo. *Egia* estaba pobre; *Gezurra*, rico.

Egia le preguntó a *Gezurra* cómo logró hacerse rico.

—*Engañando a la gente con mis mentiras*, le contestó.

De nuevo ambos se fueron hacia dos lados.

Berriz biak bi aldetara gan omentzien.

Bein batean Egia'ri ilundu omentzi-tzaion oihan batian, zuhaitz (6) baten onduan, eta zuaitz haren gainera igon omentzen gaua pasatzeko.

Gau-erdi aldera aizea bezalako arraots bat aitu omentzuen, eta gero sorgin-sail bat zuhaitzain azpian bildu.

Han sorginak elkarrekin solasean zaudelaik, batek erran omentzuen: Erregen alaba eri dun eta ez tin nihork sendatuko.

Bertze batek erran omentzuen: Nik bazakinat nola senda litaken hura: bein elizan erori ziaionen ogi benedikatua erregen alabari eta ogi hori apo batek ur benedikatuaren azpian zaukan; ogi hori jaten balu, sendatuko luken.

Gero sorginak aldein omentzuten.

Biharamunean, argitu zelaik, Egia gan omentzen erregen etxerat, eta erregekin mintzatu erranez haren alaba sendatuko zuela: emateko bi argin.

Errege'k eman omentzizkan bi argin, eta hekin Egia gan omentzen elizara eta ogi benedikatua apoaren aho-ik atera.

Eman omentzioten ogi hori erregen alabai jateko, eta hura jan eta bereala sendata omentzen.

Erregek saritzat Egia bere etxean hartu omentzuen eta bere alabaikin ezkondu.

Handik geroago Gezurra erregen etxealdean agertu omentzen, arrunt gabetua, eta bere anaiaekin mintzatu.

Egiak galde in omentzion eian nola bihurtu zen hain behartsu.

—Lenau jendeari sinestarazten nient nere gezurrak; gero jendeak ezagutu niaik eta gehiago nihork eniaik

(6) Zuhaitz erraten da basaka edo makatza denean; *arbol* erraten da gizonak aldatua bada.

(7) Zuhaitz es el nombre común de los árboles salvajes; *arbol* es el de los plantados por el hombre.

Una vez la noche le sorprendió a *Egia* en un bosque, junto a un árbol (7), y subió a aquel árbol a pasar la noche.

Hacia la medianoche oyó un ruido como el de viento y luego se reunió un grupo de brujas debajo del árbol.

Mientras las brujas conversaban allí unas con otras, dijo una de ellas: *La hija del rey se halla enferma y ninguno puede curarla.*

Otra dijo: *Yo sé cómo se podría curar ella: una vez en la iglesia se le cayó el pan bendito a la hija del rey y un sapo tiene en su boca ese pan debajo de la pila de agua bendita; si ella comiese ese pan, se curaría.*

Después las brujas se marcharon.

El día siguiente, en cuanto amaneció, *Egia* fue a la casa del rey y habló con el rey, diciéndole que él curaría a su hija: que le diera dos canteros.

El rey le dió dos canteros y con éstos fue *Egia* a la iglesia y sacó el pan bendito de la boca del sapo.

Dieron ese pan a la hija del rey para que lo comiera, y, en cuanto lo comió, se curó.

El rey, en recompensa, acogió en su casa a *Egia* y le casó con su hija.

Después de aquello *Gezurra* apareció en las cercanías de la casa real, ya muy pobre, y habló con su hermano.

Egia le contó su historia.

Entonces *Gezurra* fue también al bosque donde estuvo *Egia*, y allí, subió al árbol en que estuviera *Egia* a pasar la noche.

Se reunieron las brujas y una de ellas dijo a las otras: *Alguien se halla encima de ese árbol, alguien escucha nuestra conversación, pues la hija del rey se ha curado.*

deusik sinesten. Eta hi nola aberastu haiz?

Egiak erran omentzion zer gertatu zitzaion.

Orduan Gezurra ere gan omentzen Egia izan zen oihanera, eta han Egia igon zen zuhaitz haren gainera igan omentzen gaua pasatzeko.

Bildu omentzien sorginak, eta batek bertzeai erran: Zuhaitz horren gainean badun norbait, gure solasak norbaitek aitzen ditin, zeren eta erregen alaba sendatu den.

Zuhaitzen gaineti Gezurra jautsazi omentzuten eta arras xehatu joka.

(Contado por Dominica Gultzu en abril de 1941. Vid. variantes de este cuento en J. M. de Barandiarán *Obras Completas*, tomo II, pág. 70 y siguientes)

Variantes de este relato los hay muchos en el pueblo vasco. Una de ellas, publicada primero en *Eusko-Folklore*, ha sido reproducida en *Obras completas* de José Miguel de Barandiarán, tomo II, págs. 504-506 (Bilbao, 1973).

VIII: 161.—*Hiru anaia: bakoitza bere debozione* «Tres hermanos, cada cual con su devoción»

Ba omentzien hiru anaia.

Bakoitxak omentzuen berak maite zuen deboziona: batek meza entzutekua; bertzeak arrosarioan erratekua; bertzeak nun bildu ez duenari ostatua ematia.

Elkarren artian omentzuten ezpaita, baten deboziona obia zela bertzaina baino.

Gan omentzien ermitaiño batengana galdetzeat zeintzen hiruztan debozionaik obeena.

Harek erran omentzioten: Zoazte kurri goizetik abiatuta hiruak hiru alde, arratsean nun ilhuntzen duen, han geldi; gero biharamunean, han zer ikusten dezuten erratera neregana itzuli.

Hicieron que *Gezurra* cayese del árbol y le maltrataron a golpes.

Eran tres hermanos.

Cada uno tenía una devoción preferida: uno, la de oír misa; otro, la de rezar rosario; otro —el tercero—, la de dar hospedaje a quien no tenía dónde cobijarse.

Disputaban entre ellos que la devoción de uno era mejor que la del otro.

Fueron donde un ermitaño a preguntarle cuál de las tres devociones era la mejor.

Aquél les dijo: *Saliendo a la mañana, idos andando los tres hacia tres lados, allá donde os anochezca quedaos; después, el día siguiente volved donde mí a decir lo que habéis visto.*

El primero, en cuanto le anocheció,

Lehenbizikua, ilhundu zitziolarik, zuhaitz baten azpian gelditu omentzen. Eta gauen erditan zuhaitza loratu omentzitaion eta bi lore gainean gelditu eta bertze guziak lurrerat erori.

Bigarrena harri aundi baten azpian geldi omentzen. Eta ainitz basanimale etorri omen zitzaizko hura hil nahirik. Bertze bi animalek zaindu omentzuten hil gabe.

Hirugarrenari ilhundu omentzitaion jauregi eder baten atean. Boz batek erran omentzion: Sar zaite barnea. Sartu omentzen sala eder batean, maina prestemana afaltzeko. Berritz ere boz batek erran omentzion: Jar zaite eta jan zazu. Ederki afaldu omentzuen eta gero berritz ere boz berria erran omentzion lo eiteat gateko. Gambara eder batean gertatu omentzan eta ohe xuri ederrean lo in omentzuen.

Gero argitu zuelarik, hiruek itzuli omentzien ermitaño harengana eta erran bakoitxak ze ikusi zuen.

Orduan ermitañoak lehenbizikoari erran omentzion: Entzun dituzun mezaetaik bia bakarrik dituzu ongi entzunak.

Bigarrenari erran omentzion: Zuk errezzatu dituzun arrosarioetaik bia dituzu ongi erranak.

Hirugarrenari erran omentzion: Zure deboziona da obeena, zeneta gauzak ongi gertatu zaizkitzun.

se quedó debajo de un árbol. Y a la medianoche el árbol floreció y sólo dos flores quedaron encima, las demás cayeron.

El segundo se quedó debajo de una peña grande. Y muchos animales salvajes le vinieron queriendo matarle. Otros dos animales le defendieron.

Al tercero se le hizo noche en la puerta de un hermoso palacio. Una voz le dijo: *Entre al interior*. Entró en una hermosa sala, la mesa estaba a punto para la cena. De nuevo una voz le dijo: *Siéntese y coma*. Cenó muy bien y luego la misma voz volvió diciendo que fuese a dormir. En un elegante dormitorio se halló y durmió en una cama blanca hermosa.

Después, en cuanto amaneció, los tres volvieron donde estaba el ermitaño y contó cada uno lo que había visto.

Entonces el ermitaño dijo al primero: *De las misas que ha oído, sólo dos han sido bien oídas*.

Al segundo le dijo: *De los rosarios que ha rezado, sólo dos han sido bien rezados*.

Al tercero le dijo: *Su devoción es la mejor, por lo que las cosas le han ido bien*.

(Contado el día 11 de febrero de 1941 por Dominica Gultzu, natural de Zugarramurdi)